

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2013ko OTSAILAREN 14an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2013ko otsailaren 14an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa
Karlos Irazu Muñoa
Jon Tejeria Otermin

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - 2013ko urtarrilaren 24an egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Beobide buru baserriko teilatua berritzeko obra baimena eskaera, I.U.**
- 4. Larraulgo Bobidegain 18-eskubian egindako pergola legeztatze obra baimena eskaera, A.A.J.**
- 5. 2013 urterako udal langileen egutegiak onartzea, hala bada.**
- 6. Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Herri Ostatuan sukaldea berritzeko aurrekontuen azterketa, hala bada.**
- 8. Fakturak eta ordainketak.**
- 9. Beste batzuk.**
- 10. Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- ▣ 2013 urteko urtarrilaren 24ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA **BEOBIDE BURU BASERRIKO TEILATUA BERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.U.**

Ikusirik I.U. jaunak eginiko eskaera, non Beobide Buru baserriaren teilatua konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako aurrekontu bat aurkezten du.

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen direla, eta 66º artikulua baserrien zaharberritzearenak.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-....

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la **teja cerámica**, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.


1.-Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.-Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.

Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.

Los materiales exteriores respetarán en todos los casos lo que dispone el art. 49 de las presentes ordenanzas pudiendo sustituir los elementos exteriores como carpintería, cubierta, etc. Pero manteniendo en todos los casos el aspecto general y los elementos singulares del caserío primitivo.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datoz.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Gaia azterturik, Aritz Usandizaga zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- I.U. jaunak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Beobide Buru baserriko teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera onestu, betiere Udalbatza honek zehazten dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO BEOBIDEGAIN 18-ESKUBIAN EGINDAKO PERGOLA LEGEZTATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.A.J.

Une honetan, arratsaldeko 20.00 orduetan, Imanol Aranzabal zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.


Ikusirik A.A.J. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Beobidegain 18-eskubian egindako pergolaren legeztatze obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2013ko otsailaren 12an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO BEOBIDEGAIN 18-eskuinean PERGOLA BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTEN TEKNIKOAK

A.A.J. jaunak, Larraulgo Beobidegain 18 eskuineko etxearen alboan pergola bat jartzeko baimena eskatzen du, aurrekontu orokor eta plano bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioz ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkezturiko eskarian, Beobidegain 18-eskuinean pergola bat jarri nahi dela esaten da, lanen aurrekontua 2.000€ direlarik. Dokumentazio gehigarriaren arabera, pergola egurrezkoa izango litzateke beirazko estalkia izango lukeelarik. Pergolak 6,00x2,10m-ko azalera bat barne hartuko luke.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo arauen 14º artikulua eraikinen kanpo itxuren aldatetek udal lizentzia behar dutela esaten du eta 19º artikulua eraikin aprobetxamendua kontatzeko irizpideak ematen ditu.

Artículo 19.- Criterios de computo del aprovechamiento edificatorio

Computarán con carácter general como aprovechamiento edificatorio de un edificio los espacios siguientes:

- Los espacios cubiertos y cerrados con más de 1,80m. de altura libre- computará la parte de los mismos que supere dicha altura.
- Los elementos macizos de la edificación.
- Los patios y conductos de instalaciones de diámetro < 1,50m.
- Los huecos de ascensores.
- Los balcones, terrazas, solanas y porches de todo tipo, cuando dispongan de cubrimiento y no estén sometidos a servidumbres de uso público. Se computará el 50% de su superficie.
- En las bajocubiertas computarán los espacios y elementos anteriormente señalados, que se destinen de forma predominante a los usos propiciados o admisibles de la parcela; o, que, destinándose a usos auxiliares de los anteriores –instalaciones de servicios o trasteros- no constituyan con los locales ocupados por aquellos una unidad registral indivisible, o, en el caso de trasteros, cumplido este requisito, tengan una superficie útil superior a 15,00m² (u) por local.

.....

Por el contrario, no computarán en ningún caso como parte del aprovechamiento edificatorio los espacios y elementos siguientes:

- Los espacios cubiertos y cerrados con menos de 1,80m de altura.
- Los patios y conductos de instalaciones de diámetro >1,50m
- Los porches de uso público en planta baja.
- Los altillos, autorizados con carácter general en las edificaciones industriales.


Hiztegi ezberdinen arabera, pergola bat zutabeek eusten dieten habe horizontalez osaturiko landare igokarien euskarri gertatzen den lorategietako eraikuntza txiki bat da.

Eranskina eraikuntzako azalezko elementu batez (beira, teila...) estaliko balitz, portxe bat izango litzateke eta konputatuko luke baina mugitzen den toldo, landare edo antzeko txilarrez egingo balitz, pergola bat litzateke eta ez luke konputatuko.

Hau honela izanik eta 19º artikulua arabera, eranskin berriak 6,30m²-ko aprobetxamendu bat izango luke.

Beobidegain 18 etxea, Larraulgo lur hirtargarriaren barruan kokatua dago, bereziki 3.1. lursailan (a.10.3.1/2).

Larraulgo "C" dokumentuko A.I.U.3 URBIETA-LARRAÑAGA, fitxan azaltzen da



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

lursail honi dagokion araudia, bertan lursail bakoitzaren okupazioa eta unidadearen eraikigarritasuna finkatzen direlarik.

*Beobidegain 18 edo a.10.3.1/2 lursailaren gehienezko eraikigarritasuna 336m²-koa da eta egiteko proiektuaren arabera, partzelak eraikigarritasun kopurua haorreta hel da, **guztiz agortua gelditu delarik.***

Beraz, eskarian azaltzen den lana eraikigarritasun handitze bat suposatzen denez, ez dator Larraulgo araudiarekin bat eta legeztagarria ez dela informatzen dut.

Dena den, estalkia mugitzen den toldo, landare edo antzeko txilarrez egingo balitz, egurrezko egitura baimentzeko aukera egongo litzateke.

*Hala izano balitz, eta Beobidegain auzo-gunearen apaingarri publiko orokorra mantentzeko, gainontzeko bizilagunek etorkizunean pergola bat jartzeko asmoa aurkezten badute, **egindakoaren berdina jartzeko konpromezua** hartzen duten idatzia aurkeztu beharko da.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A.J. jaunak egin duen obra baimena eskaera ukatu, hau da Larraulgo Beobidegain 18-eskuinean beirazko estalkia izango luken pergola bat egiteko obra baimena eskaera ukatu, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasota gelditzen diren arrazoiengatik.

BIGARRENA: A.A.J. jaunari jakinarazi, Udal Aholkulari teknikoak bere txostenean jasotako baldintzen arabera egiten bada, legeztagarria izango litzatekeela egindako pergola.

“...estalkia mugitzen den toldo, landare edo antzeko txilarrez egingo balitz, egurrezko egitura baimentzeko aukera egongo litzateke.”


HIRUGARRENA: Erabaki honen berri A.A.J. jaunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2013 URTERAKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA, HALA BADA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2013 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2013 urterako Udal langileek aurkezturiko egutegiak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

BELAKO PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2013 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariari diru-laguntza emateko eskaera kontutan hartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Udala, Txantxangorri aldizkariaren harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

HERRI OSTATUAN SUKALDEA BERRITZEKO AURREKONTUEN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Herri ostatuan gaur egun dagoen gazezko sukaldea eta labea zaharkituta gelditu direla, aldatu beharrean gertatzen direlarik.

Ikusirik Herri ostatuan gazezko sukaldea eta labea aldatzeko bi aurrekontu eskatu direla, Hosfrinor eta M.Uranga S.L.-ri.


Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Larraulgo Herri ostatuan gazezko sukalde bat eta maxi labe berria bat jartzeko, M.Uranga S.L.-k aurkezturiko aurrekontua onartzea, bere zenbatekoa 3.717,00 euro + BEZ-a delarik.

BIGARRENA.- 4.497,57 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei ematea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZORTZIGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

FERRETERIA BARBE	29,83
MAPFRE	492,57
ULAHÍ	572,05
ULAHÍ	293,81
DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	332,93
ORSA	6.063,66
EUDEL	300,51
AITZOL UDAL EUSKALTEGIA	64,96
KIROLZER	135,60
TOLOSALDEA GARATZEN	840,00
BABESA SUZAI	230,87
HOSFRINOR	694,54
URKIA	166,25
MOVISTAR	103,99

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **10.321,57** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


BEDERATZIGARREN PUNTUA BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez:

9.1. LARRAULGO HERRIAN EGINDAKO PERGOLAREN AZTERKETA, HALA BADA.

Kontutan izanik Udalbatza honek Larraulgo Beobidegain 18-eskubian egindako pergola legeztatzeko obra baimenari buruz hartutako erabakia.

Gaia aztertu ondoren, batzarkideak aho batez, erabakitzen dute, A.A. eta M.A. jaunei dei egitea Udaletxe honetara etorri daitezen Udalbatzako kideekin hitzegitera, Larraulgo herrian egin nahi diren eta eginda dauden pergolari buruzko erabaki bat hartu dezaten.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMARGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

10.1. TOLOSALDEA SAHARAREKIN G.K.E.-k AURKEZTURIKO MOZIOAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ondoren Tolosaldea Sahararekin G.K.E.-k aurkezturiko mozioa irakurtzen da, ondorengo diolarik:

“Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 37. urteurrenean, Tolosaldea sahararekin elkarteak LARRAULGO udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zampaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen ezbairik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitzena adierazten du.


2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendunaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.-Mendebaldeko Saharako biztanleak, eurek askatunez egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, Mendebaldeko Saharakoak barne, dagokigun mugimendu askatasuna errespetatzea eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Espainiar estatuko diputaduen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

5.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, Mendebaldeko Saharako urak bere baitan hartzen dituen artean, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna ez berritzea eskatzen du.

6.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko urteurrenarekin bat etorri, 2013ko Otsailaren 27an arratsaldeko 19.30tan Tolosako triangulo enparantzan tolosaldea sahararekin elkarteak, maroko saharatik at autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko sahararentzat lemapean, burutuko duen elkarretatzearekin bat egiten du.

8.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 37. urteurrenarekin bat etorri, 2013ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatzea adosten du.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, Tolosaldea Sahararekin G.K.E.-k aurkezturiko mozioa bere osotasunean onartzen du.

10.2.EUDEL-ek AURKEZTURIKO “MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA” ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN AZTERKETA, HALA BADA

Batzarkideak aho batez erabakitzen dute EUDEL-ek aurkezturiko adierazpen instituzionala mahai gainean uztea “ martxoak 8: emakumeen nazioarteko eguna”.

10.3.BAI EUSKAL HERRIARI-k AURKEZTURIKO ATXIKIMENDUAREN “ EUSKAL HERRIA NAZIOA, INPOSAKETARIK EZ!” ETA GEUREA IKURRIÑA! MOZIOAREN, INPOSAKETARIK EZ!” AZTERKETA, HALA BADA

Batzarkideak aho batez erabakitzen dute, Bai Euskal Herriari-k aurkezturiko atxikimendua eta mozioa mahai gainean uztea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA